

Kostaldeko gau horietan

-I-

Gaua omen da gauekoentzat
iluntasunaren mantupean
ageri diren irudi eta soinuentzat.
Bestela agertzen dira denak:
itxura aldatuta;
areago ilargi beteko gauetan,
ur azalean islatuta,
kalean irudikatuta,
antzeman daitezkeenean.
Irudi eta soinu-dantza
hasten da orduan,
ordu txikietan
amets handietan.
Halatan, maite du elurrak
gaueko iluntasuna,
olatuen aparrak adina
gaueko bakardadea.
Olatuek ordea
hausten dute isiltasuna
hondartza laztantzean,
gazi-hezetuz lehorra,
hari betiko oratu nahian bezala,
nahiz eta jakin izan
laburra dela atsegina,
irristakorra,
beheraka-beheraka joan doala
behin betiko amets galduan,
berriro itsasoak irentsi artean.

-II-

Norbait hizketan dabilela begitandu zait,
portu aldetik.
Hara nor diren hizlariak:
atseden hartzen diharduten bi itsasontzi,
Beldurgarri eta Ikaragarri.
Gauerdia igarota aspaldi,
etxerako bidean nindoala entzun ditut
nahiz eta deus ez ulertu,
umetako garaietan moduan.
Noizbehinka ohetik aditzen nituen,
eta haien marmarrak ematen zidan zer pentsatu.
Hizkuntza arrotzaren soinuak
azkenean loarazten ninduen,
egun guztiko nekeak gehiago eginda seguru.
Egunez aurpegiak eta dena bereizten nizkien
gertutik nahiz urrutitik,
nahiz eta osabak barre egin,
behin esan nionean hori,
menditik bueltan gentozela bidezidorretik.
Eta nik baietz,
haserre, nire bostean temati,
aurpegiak zituztela itsasontziek,
begiratzeko, begiratzeko zubiak,
zeharo desberdinak zirela.
Eta horrela egin zidan apustu txikia:
"ezetz igarri zein diren handik datozen bi ontziak?"
Urruti ziren artean,
bi-biak gorri-gorriak gainera,
baina igarri nion bete-betean,
portu barrura sartu zirenean,
irabaziz merezitako propina.

Lasterrera galdu nuen ordea,
haurtzaroan sarri geratu ohi den bezala,
nire mundu txikiko logika handia,
gau batean erabaki nuenean
amari itsasontzien hizkuntzaz galdetzea...
...Itsasoa mugitua dabilen gauetan,
barruko itsasoa deritzona dagoenean,
urak eraginda,
tenkatzen dira ontzien txikotak,
portuko bitara luzatutako sokak,
ateraz haien krikara,
eta jarraian
ontzien aieneka,
talka egitean,
nasako gurpil babesleen aurka.

-III-

Loak hartu orduko
desagertuko ziren seguru
ur-ertzeko nire oinatzok.
Ibilbide amaigabeen,
ortozik hondar gainean,
mutur batetik bestera,
zenbat irudi zetozkidan bueltan
bihotzetik bururako bidean,
iragana atzean utzi nahian.
Loak hartu orduko
atzean da iragana galdu,
itsasoak eramanda behin betiko.

F. Javier Arrieta Idiakenez